

NOEL, OLENTZARO, ERREGEAK ETA ZALDI-GOROTZA

Mateo ebanjelariak diñonez, Jesus jaio-barria zala, Mago batzuek, aztiak, etorri ziran aurrari agur egitera. Etorri ere eguzkia sortzen dan aldetik etorri ziran.

Jesus'i erregaliak eskeiñi eutsoezan urrea, intsentzua eta mirra. Balio aundiko iru gauza orreitik, erriak Magoak errege biurtu ebazan, kristau alderdian.

* * *

Gabonak eta Eguzkiaren barritzea alkarrekin doaz: Egu-berri, argi-berri da-ta. Orrekin buztartuta, Noel agertzen da Europa Iparraldeko errietan. Gizaseme zaartua eta oso ona, umeeri erregaliak ekartzen dautsezena. Zenbait tokietan Noel, Santa Klaus edo San Nikolas biurtzen dabe.

* * *

Euskaldunen artean, barriz, Olentzaro jauna dator Eguberrietan Jesus'en jaiotzaren barri emotera. Orra Olentzaro'rekin San Klaus, San Nicolas, Erregeak eta Noel.

Arritzekoa auxa da: Olen-tz-aro, Olen'en aroa dala dirudi, aur-tz-aro eta zaar-tz-aro aurren eta zaarren aroak diran lez; *Olen* eta *Noel* izki edo letra bardiñez egiten diran berbak dozuz.

Olen-tz-aro Noel-aro ete da?

* * *

Dana dala, Gabonetan Noel'ek eta Olentzaro'k, eta Epifami edo Agerkunde egunean Erregeak umetxoeri, eta baita nagusieri be, Jesus'i bezala, euren eskeintzak egiten, deutzeez.

* * *

Ona zer gertatu zan erregali orrekin etxe batean:

Bi seme, ebezan; bata oso lur-jota ebillena beti, oso pesimista.

Besteak, berriz, ez eban lurrik ikusten, beti aidean, optimista utsa. Baikorra oiñetatik burura.

Eldu zan erregalien eguna. Gabon eguna zan ala Errege eguna? Orixe ziur ez dakit. Jo dagigun aurrera. Senar-emazteak alkarrekin berbetan:

—Gure seme triste oneri gauza eder bat ipiñiko dautsagu, ia apur bat alaitzen dan.

—Zer ipiñiko?

—Nik eskumuturreko urrezko ordulari eder bat ipiñiko neuskio. Zer deritxozu, andratxo?

—Ondo dagoala ori. Orrelako pitxi eder bategaz biotza alaituko jako eta animoa gora jasoko.

—Bai, ori berori egingo dogu.

—Eta, beste txintzarriari zer?

—Edozerekin konformatzen da. Orrentzat dana da eder eta ona.

—Begira, zaldiak egiñiko gorotza daukot aundia eta zabala kortan eta berau ipiñiko deutsagu oiñetakoen ondoan.

—Probetxuren bat atarako dau, zalantzarik gabe.

—Ikusi daigun zer joka-bide ataritzen daben bakoitzak.

* * *

Gurasoek esan bezala egin eben: bateri urrezko erloju ederra eskumuturrerako eta besteari zaldi kaka-plasta aundi bat.

Etorri da goiza egunsentiaren argitara. Jaso dau batek urrezko ordularia:

—Baiña, nik orrelako gauza eder bategaz zer egin bear dot? Eta, arrapatzen ba'deuste? Eta, galtzen ba'dot? Eta, apurtutzen ba'jat? Eskolan barre egingo deuste onelako erlojuakin ikusten ba'nabe...

Akatsak eta arantzak besterik ez eutson pitxi eder arreri topau gure mutil koitaruak eta gizajoak.

Eldu da bigarren semea leiora. Zal-di-gorotza oiñetakoen ondoan:

—Zer, Oto-diñotso kaletik Peru'k-zer ekarri dautzue Erregeak?

—Ez, Olentzaro izan da.

—Eta, zer ekarri...?

—Zaldi eder bat; baiña, bertan kaka egin eta alde egin daust. Etorriko da.